



PRENTSA OHARRA

Kantu Gregoriar Abesbatzak “Gabonetako Kantu” kontzertua eskainiko du ostiralean Santa Maria Katedralean

- Ismael Fernández de la Cuestak zuzenduta, talde ospetsua Katedraleko nabean arituko da bere sorreraren 25. urteurrena ospatzeko
- Emanaldia 19:30ean hasiko da, eta sarrera librea izango da leku guztiak bete arte

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 18an.- Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedrala, Ismael Fernandez de la Cuestak zuzendutako Kantu Gregoriar Abesbatzaren “Gabonetako Kantu” kontzertu berezia jasoko du ostiral honetan, abenduaren 20an. Emanaldia taldearen 25. urteurrenako ospakizunen barruan dago, eta 19:30ean hasiko da. Erromako liturgia gregoriarraren arabeko Gabonetako Eguneko Meza gisa egongo da egituratuta.

Juan Carlos Elizalde Gasteizko gotzainak ongietorria eman ondoren, saioa Sarrerako Prozesioari dagokion kantuekin hasiko da, Puer natus in Bethleem pieza, hain zuzen ere, eta, ondoren, tradizio gregoriarreko Gabonetako hirugarren mezaren, abenduaren 25eko goiz erdian abesten zenaren, ohiko egiturarekin jarraituko du. Hala ere, emanaldi bereziaren amaieran, Descendit de celis, errespontsua, gauerdiko mezarekin abesten ziren Maitinetako pieza ospetsuenetakoa, abestuko da.

Kantu Gregoriar Abesbatza Ismael Fernández de la Cuestak, Santo Domingo de Siloseko monje Beneditarren abesbatzako zuzendari ohiak, sortu zuen "mendebaldeko musika kultuaren oinarrian" dagoen kantu motaren balioa nabarmentzeko helburuarekin. Berarekin batera, hogeitaz hamar lagunek osatzen dute gaur egun, bertako kantari askoren jatorriarengatik Arabari oso lotuta dagoen Kantu Gregoriar Abesbatza.

Zaharberritze prozesua abian jarri zenetik Abesbatzak Katedralean abestuko duen hirugarren aldia izango da. Izan ere, 2012ko ekainean gangetan jardun zuten, obretako aldamiotan jarrita, eta hori "emozio sakoneko" unea izan zen beraientzat, Fernandez de la Cuestak dioenez

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Javier Palacios - 628 538 199 - comunicacion@atedralvitoria.eus